

 IBARRAKO UDALA <small>GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA</small>	Espedientea: / Expediente:	Poltsa orokorra 2020WPOL0098
	Dekretu-zk.: / N° Decreto:	155/ 2020
	Titularra: / Titular:	IBARRAKO UDALA
	Gaia: / Asunto:	COVID-19 protokoloa

2020/155 ALKATE DEKRETUA

Ikusirik gizarte zerbitzu sailetik Covid-19ak sortutako egoerari aurre egiteko proposaturiko neurriek eta horien artean, zenbait pertsonen artean lehen beharreko erosketak egiteko bale sistema bat martxan jartzea.

Kontuan harturik udal honek 154/2020 dekretu bidez 9/2017 kontratu legearen 120. Artikuluan abian jarri duela emergentziazko kontratazioak burutzeko, eta eraz udal kontu hartzaitzaren aurretiazko kontrolatik, eta ohiko kontratu legeak jasotako prozeduratik kanpo geratzen diren kontratazioak burutu daitezkeela.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gaian indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU:

LEHENENA.- Gastu lerro bat abian jartzea, Gizarte Zerbitzuak zehaztutako pertsoneri banatuko zaizkien lehen beharretarako erosketak burutzeko baleak ordaindu ahal izateko.

BIGARRENA.- Programaren funtzionamendua:

- Bale hauek jasotzen dituzten herritarrak Ibarra komertzioetan aldatu ahal izango dituzte lehen beharreko artikuluen truke, ordainketarik burutu gabe.
- Herriko merkatari elkarteko kide diren edo herriko gainontzeko komertzioak, egoera honetan lanean jarraitzeko aukera dutenak, atxikitu ahal izango dira programa honetara. Horretarako gizarte@ibarra.eus helbidera nahi hori adierazi beharko dute.
- Gizarte teknikariak une bakoitzean txosten bidez zehaztuko du zein diren bale hauen erabiltzaileak, eta udala izango da bale hauen banaketaren ardura izango duena.
- Atxikitzen diren komertzioak Ibarra udalari fakturatuko dizkiote gastu hauek, fakturarekin batera dagozkion tiketak entregatu beharko direlarik udalean.

BIGARRENA.- Interesatuei honen berri ematea.

Ibarran, 2020ko martxoaren 20an


ALKATEA
 Igor Zapirain Lizarribar